

## **FEMINISMOAN ETA EMAKUMEEN AHALDUNTZE PROZESUETAN JARDUTEN DUTEN HERRITAR ADITU ETA ARITUEK SAREGILEKO AHALDUNTZE ESKOLAN IKASTAROAK ESKAINTZEKO IRIZPIDEAK**

### **Zer da ahalduntze eskola bat?**

**Ahalduntze eskola** emakumeen\* (eta, askotan, genero-disidentzien) **ahalduntze pertsonal eta kolektiboa** sustatzeko sortutako espazio hezitzaile eta eraldatzailea da. Helburua ez da soilik prestakuntza eskaintzea, baizik eta subjektu kritiko, autonomo eta aktiboak indartzea, ikuspegi feministatik.

### **Zer da ahalduntzea?**

Ahalduntzea prozesu bat da, non pertsonek:

- beren bizitzen gaineko kontrola eta erabaki-ahalmena handitzen duten.
- autoestimua eta konfiantza garatzen duten.
- egiturazko desberdintasunak identifikatu eta horiei aurre egiteko tresnak eskuratzen dituzten.

### **Ahalduntze eskolaren ezaugarriak honakoak dira:**

- **Ikuspegi feminista:** genero-desberdintasunak eta botere-harremanak aztertzen dira.
- **Parte-hartzailea:** jakintza kolektiboa eta esperientzien partekatzea oinarri.
- **Praktikoa eta eraldatzailea:** eguneroko bizitzan eragiteko tresnak ematen ditu.
- **Segurtasun-gunea:** konfiantzazko eta zaintzan oinarritutako espazioa.

### **Helburu nagusiak**

- Emakumeen\* autonomia eta agentzia indartzea
- Sareak eta elkartasuna sustatzea
- Desberdinkeriak murriztea eta justizia soziala bultzatzea

## **Informazio praktikoa**

### **Baloratzerako orduan kontuan izango diren irizpideak**

- Bidelagunaren formakuntza eta ibilbidea
- Proposamenak emakumeon\* ahalduntzeari eta saretzeari begira dituen onurak
- Ikuspegi feminista
- Euskara lehenetsiko da. Proposamena beste hizkuntza batean egiten bada, euskararekiko hartzen den konpromisoa baloratuko da
- Hitz hartzeak kudeatzeko konpromisoa/estrategiak
- Espazio segurua bermatzeko tresnak eta metodologia

### **Ekintzen programazioa eta proposamenak bidaltzeko epeak**

Saregileko ekintzen eta Ahalduntze Eskolen programazioa bi txandatan egiten da ikasturte bakoitzean: iraila-abendua eta urtarrila-ekaina.

- Iraila eta abendua bitartean ikastaroa emateko, beranduenez, apirilaren 20an bidali beharko da proposamena.
- Urtarrila eta ekaina bitartean ikastaroa emateko, beranduenez, aurreko urteko irailean bidali beharko da proposamena.

### **Aurrekontua eta fakturazioa**

Orioko Udalak, gehienez, 80€ orduko ordainduko du ikastaro bakoitzeko. Kopuru horri gehituko zaio, batetik, prestaketarako ordu bat (80€) eta kilometrajea.

Fakturazioa Orioko Udalaren izenean egin beharko da Efaktur erabiliz.

### **Proposamenak izan behar dituen atalak:**

Gutxienez, atal hauek izan beharko ditu proposamenak:

- Ikastaroaren izenburua
- Ikastaroaren helburuak
- Bidelagunaren formakuntza eta curriculum
- Emakumeen\* ahalduntzeari lotutako onurak
- Metodologia
- Hizkuntza
- Ordu kopurua
- Partaide kopurua

### **Proposamenak bidaltzeko helbidea:**

saregile@orio.eus